

# Nafarkaria

• ostirala • 1998ko azaroaren 6a

**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**



**Irurtzun** • Errusiara janaria eta bestelakoak bidaltzeko ekimena.

**Tasio Agerre** • «Ahots kritiko bat izan nahi dugu».

## Incubadora de empresas

Una "Incubadora de Empresas" es un espacio de acogida para la primera fase de vida de cualquier empresa: su puesta en marcha.

Nº total de empresas instaladas en CEIN:	48
Estancia media:	3 años
Nº de empresas que continúan su actividad:	35
Actualmente son 19 las empresas instaladas en la Incubadora de CEIN, en su mayoría relacionadas con la actividad industrial y la producción.	

En esta primera etapa –quizá la más complicada– los/as emprendedores/as deben enfrentarse a problemas como la financiación de las inversiones realizadas, el desconocimiento del mercado, los competidores, su propia inexperience, etc. En la medida en que la empresa es más innovadora, estas dificultades se multiplican.

Por este motivo, CEIN apoya a las empresas más innovadoras, ofreciéndoles la posibilidad de instalarse en sus naves por un periodo de 2 años –prorrogable hasta 4 años– bajo régimen de alquiler, compartiendo una serie de servicios comunes que también aporta CEIN (conserjería, correo, vigilancia, parking, restaurante, etc.). Este servicio se denomina "Incubadora de Empresas Innovadoras".

# Enpresa berritzaileen eredu

CEINEK (Nafarroako Enpresaren eta Berrikuntzaren Zentro Europarra) hamar urte bete berri ditu. Denbora horretan, enpresa bat sortzeko helburuarekin, hainbat lagun hurbildu dira erakundera aholkularitza eske. Geroztik, 980 enpresa berri martxan jartzen lagundu du erakundeak. Ondoren adibideak arrakasta horren lekuko dira.

Irurtzun •

# Errusiara maitasunez

Janari biltzen ari dira Lekunberrin eta Irurtzunen, herrialde hartara bidaltzeko

**Solidaridad Navarra Sin Fronteras** izeneko gobernuz kanpoko erakundeak harreman estua du Errusiako zenbait umezurtzekin. Haiek hain beharrezko dituzten jakiak bildu nahi dituzte orain.



Errusiara jakiak eta bestelakoak bidaliko ditu 'Solidaridad sin fronteras' Gobernuz Kanpoko Erakundeak.  
• JAGOBA MANTEROLA

**B**ADA ERRUSIATIK MAITASUNEZ izeneko film ezagun bat. Pelikularen izenburua, ordea, aldatu egin du GKE honek, Errusiara-zuzentzen baitu bere maitasuna eta elkartasuna. Balio horiek gauzatzeko, hala ere, jakiak, mantak, eta antzekoak behar izaten dira. Horiek biltzeko ahaleginetan dabilza Solidaridad Navarra Sin Fronteras-eko kideak. Kanpaina hau hilaren 15ean amaituko da. Batez ere babarrunak, arroza, esne hautsa, kakaoa eta mantak behar dituzte, gauza horiek oso urri baitira Errusian, benetan krisi ekonomiko larria pairatzen ari da eta.

Duela sei urte, Iruñeko zenbait ikastetxek truke bat egin zuten Errusiako haurrekin. Bertako umezurtzegi batzuetako haurrak Nafarroara ekarri nahi zituzten, han bizi zuten egoera latza, egun batzuz behintzat, alderatu zezaten. Irurtzuno guraso batzuek hartu zuten parte ekimen hartan, eta herrian zabaldu zuten berria. Handik sortu zen Solidaridad Navarra Sin Fronteras izeneko gobernuz kanpoko erakundea. Egoitza nagusia Irurtzunen du,

baina Lizarrara eta Iruñerrira ere hedatzen da.

Urtean zehar hainbat ekitaldi antolatzen dituzte, asmo bakarrarekin: dirua bildu, gero hirurogei ume inguru honaino ekarzteak dakarren gastuari aurre egiteko. Baina dirua ez da istorio honetako ardatz nagusia. Ume horien eta hemengo familien artean oso harreman berezia sortzen da. Gainera, urtero-urtero, ume berak etortzen dira etxe beretara, eta horrek areagotu egiten du harreman hori. Erakundeko kide Maite Baraibarrek honela dio: «Etxekoak dira azkenean. Telefonoz deitzen diegu, haien ikasketez arduratzen gara, tarteka zerbait bidaltzen diegu...». Truke honetan parte hartzen duten haur guztiak ume-

zurtz dira, Siberiako Txeliabinks izeneko eskualdeko umezurtz etxeetan egoten dira. Maite Baraibarrek dioenez, «benetan egoera latza bizi dute. Tratu txarrak eta torturak ere pairatu izaten dituzte, eta horri osasun kontuak gehitu behar: haurretako gehienek rakitismoa, hotzeta-ko arazoak izaten dituzte, Arazo psikikoak ere ez dira makalak: alkoholismoa, prostituzioa eta horrelako gaiak ezagunak dituzte». Ulergarria gerta daiteke hona etorri bezain laster irribarra azaltzean haur hauen ezpainenetan. Hala ere, Maitek onartzen du, beharbada «gaizki hezitzen» dituztela, baina «bihotza bigundu egiten da, eta...».

Haien egoera kezkarriagoa da gaur egun pairatzen ari diren

krisi ekonomikoa dela eta. Horregatik, behar-beharrezkoa dute gure elkartasuna. Babarrunak, arroza, esne hautsa, kakaoa, mantak... guri ez zaizkigu hainbeste kostatzen, baina haiei, aldiz, arazo pila konpontzen diete. Lekunberriko Mitxausenea kultur etxea eta Irurtzuno udal-letxea dira, besteak beste, janaria biltzeko aukeratu dituzten egoitzak. Hilaren 15ean denak pilatu, txukundu eta milaka kilometroko ibilbidea hasiko dute. Ibilbide zaila, inondik ere: kamioietan eramateko arazoak izaten dituztela eta, iaz trenez eraman zuten merkantzia. Aurten oraindik ez dakite nola eramango duten, baina iritsiko da, seguru.

→ Urko Aristi

**Aldatz**  
•  
**Denetarik izango da sanmartinetan**

**GAUR, EGUERDIKO ORDU BATEAN** jaurtiko duten suzuriak emango dio hasiera ezkil jotzeari, eta horrek, bide batez, festeei. Gero, aldaztar guztiak mahai inguruan bilduko dira. Bazkaltzeko, lehenik, eta mus txapelketan aritzeko, ondoren. Txapelketako finala, halere, gauerdian izango da. Muxutruk taldeak alaituko duen dantzaldia hasi baino lehenago. Eta eguna amaitzeko, sorgin afaria, 5:30etan. Bihar, goizeko 11:00etan, txistulariak ibiliko dira herrian zehar, goiz-soinua iragarri baitute ordu horretarako. Geroxeago, txarangak hartuko dio lekukoa etxez etxeko errondan, Arratsalde, Marcillan aitzurra jaurtitzen duten moduan, Aldatzen mailua botako dute 17:00etan. Musika, bihar, Almen taldearen esku izango da.


Igandean, motor hotsa nagusituko da Aldatzen, motor proba garrantzitsu bat jokatuko baita: II. Enduro Nafarroako Txapelketa. Gero, meza ondoan, 13:00etan, ohikoagoa den beste kirol bat izango da: aizkora apustua. Arratsaldean haurrentzako jokoak izango dira, lehenik eta behin, eta mago ikuskizuna ondoren. Modesto gizon-orkestra saiatuko da, egun osoan, giroa jartzan.

Patroiaren eguna, halere, asteazkenean da. San Martinen ohorezko meza nagusiaren ostean, emakumeen arteko toka txapelketa izango da egun horretan. 22:00etan herrikoen afaria, eta ondoren Modestoren doinuekin dantzan egiteko aukera.

→ Urko Aristi

bi hormetara

**JOSETXO AZKONA**



## Ezbeharraren geografia

**E**z zait burutik pasatzen zer ote daitekeen 250 kilometro orduko abiaduraz doan erauntsi baten zurrumbiloan egotea. Zer gertatuko ote zaio orduan, gizakumeari, naturaren gatibu eta azpiko erabat dagoenean? Zapart egingo al diote belarriek haizearen burrunbagatik? Hai-erauntsiak berarekin dakartzen euri tantek azala minduko ote diote udako listor ziztadak bailiran? Nolatan izango da lubizi erraldoi bat mendiz behera gainera datorrela ikustea, eta aterpe bakarizat uralitazko etxola bat besterik ez dagoela sentitzea?

Labur esatearren, saiatu bai... baina asmatu ezinik nabilela zer-nolako zorabioa sor ote dezakeen hurakan batek beraren menpe daukan bizidun ororen. Horrelako ikara bizi duenak bakarrik konta dezake ikararen agerkizun mingarria. Milaka hilda-

koen gorpuak mintzatzen zaizkigu bestalde, berriek ere ikararen meneko egon direla hil orduko.

Eta horrelakoak gertatu dira azken asteburu honetan. Hemendik urrun, Karibe aldean, alegia. Izan ere, *Mitch* erauntsiak bortizki zurratu dituen Erdialdeko Amerikako herrialdeetatik heldu zaizkigun irudiak ez dira aski —eta zinez, bai izugarriak izan direla telebistaz erakutsitakoak— txikizioaren benetako tamainaz ideia fidagarri bat egiteko.

Halakoetan, zera da, natura bere senetik zeharo atera eta —orain suertatu den bezala—, gure planetaren alderdi zabalak sakon astintzen dituen, irudiez eta mintzoez haratago jo beharra dago irudimenez, baldin eta tragediaren aurpegia egitan ikusi nahi badugu. Uste dut, gainera, ahalegin hori

eginda ere, ez dela nahikoa, ezinezkoa zaigula ideia zehatz bat edukitzea, eta hori, hain zuzen ere, neurritz gainera hondamendiaren haundieragatik. Tokian tokiko kalte eta jendearen sufrimendu lazarrien zerrenda motz gertatuko da beti, halakoetan. Nazioarteari tokatzen zaio, bereziki, era bateko zein besteko laguntzak bideratzea. Horrez gain, gutariko bakoitzak badu nola lagundu horri hemenka zabaldu diren solidaritza bideak baliatuz.

Honduras, Nikaragua, Guatemala, El Salvador... Zenbat min eta etsipen! Zenbat nahigabe bata bestearen gainetik pilatzen doazenak! Haien lurraldeak, alde guztietatik franko zigortuta zeudenak, orain, ur lokaztuen azpian daude itota. Ezbehar handiagorik, ezbeharraren geografia zabalean ere, ezin topatuko zuen inork.

Berriozar

Euskara  
bultzatzeko  
hitzarmena

SIADCO ENPRESAREN IKERKETA baten arabera, Berriozarko biztanleen %10ek badakite euskaraz. Dena dela, datuak herrian mugitzen diren elkartetara zabaltzen badira, portzentaia %20ra igotzen da. Datu hori kontuan izanik, Udalarekin batera euren elkartean euskara bultzatzeko konpromisoa hartu du Berriozarko euskalduntze maila hobetzeko asmoz. Horretarako, euskara eskolatik eta lanetik kanpo antolatzen diren ekitaldietan sustatzen ahaleginduko dira. Ekimenak herriko elkarleen %80ren sustengua izan du, 37 taldeetatik 28k sinatu baitute akordioa.

Elkarte bakoitzaren egoera ezberdina dela aintzat hartuz, euskararen erabilpen maila ere neurri horren arabera izanen da. Oinarrizko maila batean 20 elkarte ariko dira. Talde horiek euskara kanpo harremanetarako erabiliko dute idatziz zein ahoz. Bigarren maila batean hamabost talde kokatu dira. Elkarrekin euskara erabiliko dute beste talde batzuekin dituzten harremanetan, bestelako kanpo erlazioetan, eta egiten dituzten hainbat ekitalditan. Bestalde, euskara ohiko hizkuntza duten erakundeak, AEKK eta Berriozar Berriz Euskaldun Elkarrekin, eguneroko lana zein kanpo harremanak euskaraz egiten dituzte. Ordainean, Udalak zerbitzu batzuk eskainiko dizkie aipatu elkarteak: euskarazko ikastaroak, itzulpen zerbitzua eta ekitaldien aurkezpena, beste batzuen artean.

→ Uxue Zabaleta

# Lizarra • Euskararen sustraiak sendotzen ari dira

Jende aunitzek euskarara gerturatzeko ahaleginak egiten ditu

**Bai ume kozkorrek, bai gazteek zein helduek, euskara ikasteko duten kemena agerian jarri dute berriro ere. Lizarran geldiezina da gure hizkuntza zaharrak etorkizunerantz hasi duen bidea.**

Urteak urtera gero eta handiagoa da Ega ibaiak zeharkatzen duen hirian euskara ikasteko saioa egiten duen jende kopurua. Horren lekuko dira azken urte hauetan Lizarrako ikastetxeak eta euskaltegia bera. Errealitate honen adierazgarri diren datu batzuk aipatuko ditugu.

Ikasturte honetan 3.712 haurrek eman dute izena hiriko ikastetxeetan, bai haur hezkuntzan, bai lehen hezkuntzan. Haietatik 775 euskara hutsean ari dira: 681 Lizarra ikastolan eta bertze 94 Remontival eskola publikoan. Azken ikastetxe horretan bertze 177 ikasle A ereduari matrikulatu dira, eta gainerako bertze hiru ikastetxeetan, A ereduari soilik eskaintzen duten arren, gorantz egiten ari da etengabe ikasleen kopurua. Bigarren hezkuntzari dagokio-



Kilika taldeko partaide batzuk agerraldi publiko batean.

• KRISTINA BERASAIN

nez, egun 63 ikasle dhardute D ereduari. Orotara 863 ikasle ari dira ikasten Lizarrerria institutuari. 63k euskara hutsean ikasten dute, eta bertze 114 A ereduari ari dira.

Beñat Etxepare euskaltegian ere gora egiten dute matrikulazioek. Orotara 112 ikasle daude—iaz baino hogeita hamar bat gehiago— eta haietatik 26k aurreneko urratsean eman dute izena.

Lizarrako Kilika euskara taldearen hitzetan, gauza jakina da euskara gero eta hedatuagoa eta barneratuagoa dagoela hiriko biztanleen artean. «Egun euskara komunikazio bide bat da, eta sarritan elkargunerako oinarrizko elementu bat ere bai. Haatik, bere

erabilera zuzpertz beharra dago. Jarrera onuragarria baldin bada ere, askotan erabilpena zokoratua gelditzen da. Lizarran dagoen euskaldun kopurua ez da kalean behar adina islatzen».

Kilika euskara taldeak aurten ere euskararen astea prestatzen dihardu; hala ere, momentu honetan bertze elkarrekin elkarlanean aritzeko asmoari garrantzi handiagoa ematen diote. «Buruan daukagun egin beharra hauxe da: bertze elkarrekin harremanak sendotzea, elkarlanean aritzeko eta modu horretan gizartearen aurrean gure indarra nabariagoa izateko».

→ Kristina Berasain

## herri aldizkariak

Edurne Elizondo

### Aceraliaren indarberritzea

Nafarroako iparraldean lan munduaren zutabe den Aceralia enpresari buruzko erreportaia dakar **Ttipi-ttapa** hamabostekariak azken zenbakian, Asier Gogortza kazetariak idatzitako artikulua eskutik. «Urdazubitik eta Bera artean dauden herri guzietan ekonomiko badute antzekotasun handi bat. Berez nekazar eremuak izanagatik, gaur egun etxe gehienetan industriatik sartzen da bizitzeko beharrezkoa den errenta. Eskualdean Aceralia da, diferentzia handiarekin, langile gehien enplegatzen dituen enpresa: Legasa, Zalain eta Lesakako fabriketan 1.340 lagun ari dira lanean. Horieta-

ko 969 eskualdean bizi diren langileak direla kontuan izanik, aisa ikus daiteke Aceraliaren eskualdeko ekonomian duen pisu ikaragarria».

Gaur egungo Aceralia, Laminazioak izenarekin ezaguna zen duela gutxira arte, **Ttipi-ttapa**ko artikulua gogora ekartzen duenez: «Lesakako Laminazioak izatetik Aceraliara aldaketa ez da egun batetik bertzerara eman: 94an CSI izena hartu zuen lantegiak, eta ondoren, 97ko udan, pribatizazio prozesua etorri zen, eta horrekin izen aldaketa berri bat. Espainiako Gobernuak bultzatutako pribatizazioaren ondorioz, Arbed Luxenburgoko en-

presa bihurtu zen Aceraliako jabe nagusia, akzioen % 35a erostearrekin batera».

«Pribatizazioarekin, lanpostu murrizketa eta lantegia ixtea bezalako mamuak berehala zabaldu ziren herritarren artean. Geroztik, ordea, kezka guzi horiek alde batera gelditu direla iduri du, gerora begira begi onez ikusten direlako Aceraliaren eskualdean dituen asmoak. Lantegia indarberritzeko gogoz plan berri bat martxan jarri zen 97an. 2002. urtera arte luzatuko da plan hau, eta bertan ageri diren egitasmoen artean, Nafarroako lau lantegietan 8.000 milioiko inbertsioak egitea aurreikusten da».



urdairen  
mintzoa

Xabier Larraburu

### Agur aterki maitea

Aterkia atzo nonbaiten galdu nuela ohartuta peskizan eman dut goiza. Aurretik tabernara joan naiz. Tabernariak, atea erdi irekita, garbitzen ari ziren oraindik eta berehalaxe ezagutu nauten. «Hara! hona hemen gure txapelduna! Zer, atzoko errekorra hausteko prest ala?». Nire aterkiak galdetu eta ezetz, ez nuela han utzi. «Hemen utzi zenuen gauza bakarra fama da gizona! A zer nolako putero mozkortial! jajaja». Mixerableak! Gero Iturramara joan naiz Arcadiaren pisura. Kostata bainan azkenean aurkitu dut. «Hemen ez zenuen utzi, Xabi, moñoño, -esan dit automatikotik Arcadiak (ikaslea, hogeitahiru urtekoa, zure agindua beteko ditu, pisu propioan edo hoteletan). Ondotik, Iturraman bertan, atzo egon nintzen beste pisu batera jo du. «Ez gizona, hemen ez dago aterki galdurik» esan dit Soniak (hogeitalau urte. Bideoak. Urrezko eurria). Beste pisu batean, Iturraman beti, Nataliek (hogeitahamabi urte. Visa. Frantsesa gomarik gabe) gauza berbera errepikatu dit ahots asperduak: «hemen ez gizona, hemen oroitzen onak bakarrik utzi zenituen». Ironikoa izan nahi zuen, noski. Jada aterkiak paso egiteko asmoa nuenean botikaz oroitzen eta hara joan naiz. Botikarioak ezetz, ez nuela han galdu; han biagra botea eta kilnex batzuk besterik ez nituela erosi eta alde egin nuela esan dit. Esku artean ea ote neraman ez zela fijatu. Barkatzeko. Ea zer moduz galdetu dit gero. Pixka bat aztoratua ongi, ongi, erantzun diot. Emazteaz ere galdetu dit. Nire lotsak hondoa hortxe jo du atzo pilulak erosterakoan eman nituen azalpen faltsuak oroitzen. Balizko emazte hortaz hitzegitea suertatu zait beraz. Hura ere pozik dagoela esan eta anka egin dut nire uestez Opusekoa den botikatik. Etxera. Atea ireki eta hemen ere berregin ditut bezperako pau-suak. Ate hontatik atera nintzen bart. Hemen hartu nuen galdutako aterkia. Gela honetan jaso nuen berokia eta dirua. Mahai hontan irakurri nuen egunkaria hortxe dago eta hortxe bertan ere irakurri nuen berria: «gaurdanik Nafarroan da biagra». Eseri eta dena hemen hasi zela pentsatu dut. Kagoenlatxota! Zein bide bihurriak hautatzen dituzte aterkiek gure ingurutik desagertzeko.

# Enpresari berriak eta berritzaileak laguntzen

Hamar urte bete berri dituen CEIN erakundeak 980 enpresa sortzen lagundu du denbora horretan

CEINek (Nafarroako Enpresaren eta Berrikuntzaren Zentro Europarra) hamar urte bete berri ditu. Denbora horretan, enpresa bat sortzeko helburuarekin, hainbat lagun hurbildu dira erakundera ahulkularitza eske. Geroztik, 980 enpresa berri martxan jartzen lagundu du erakundeak. Ondoren adibideak arrakasta horren lekuko dira.

**T**XITOAK ARRAUTZA-OSKOLA Hautsi baino lehen azitzeko oilloka amaren etengabeko beroa behar duen moduan, enpresa berria eta berritzailea abiatu nahi duen batek ere laguntza behar izaten du. Ideia argi izan arren, askotan ez baitaiki zer aurkituko duen martxan jarri eta ondorengo bidean. Laguntza hori eskaintzen saiatzen da CEINeko (Nafarroako Enpresaren eta Berrikuntzaren Zentro Europarra). Egun 34 langile dituen erakundeak hamar urte bete berri ditu, eta joandako denbora horretan 980 enpresa sortzen lagundu du. CEINen kapitalaren %68 Nafarroako Gobernuarena da eta gainontzeko Nafarroako beste enpresa batzuenak. Erakundeak bultzatutako enpresak izaera berritzailea dute. Hasiera batean enpresa berri bat ezarri nahi zuenari ahulkularitza eta formakuntza ematen hasi ziren, eta urteak joan ahala, lan hori zehazten joan dira. Aurten 368 milioi pezetako aurrekontua du (15 milioi libera) eta asmo berriak. Carmen Leza, Enpresen ahulkularitza sailko zuzendariak dioenez, orain arte ekimen handiko pertsonak laguntzeko formakuntza eta egoitza uzten zieten gehienez lau urtetan. «Saiatuok ahaztu gabe, azken urteetan martxan dauden enpresa txiki eta ertainentzako dinamizazio planak egiten hasiak gara eta, aldi berean, komunikazioa eta informazioaren teknologiak ari gara jorratzen».

Dena dela, bide berriak zabaltzen hasi badira ere, ekimen handiko jendeari eskainitako zerbitzuak uzta eman du dagoeneko. CEINn sorkuntzarekin batera, 1988an, hasi zen programa. Hala ere, egun eskaintzen duten zerbitzu osatua eta hobea da. «Jende gehiago gaude eta informazio gehiago daukaguz, askoz zerbitzu hobea ematen dugu eta jende gehiagorengana hurbiltzen gara». Ez dute dirulaguntzarik ematen baina badute enpresak bultzatzeko diru bat eta gehienez milioi eta erdi pezetako mailuega eskaintzen dute (60.000 libera), %0 interesarekin eta abala proiektuaren bideragarritasun plana izan da. Bideragarria bada mailuega ematen zaio eta bi urtetan itzuli beharko da. Errazen aurrera ateratzen diren proiektuak martxan jarri diren ohiko proiektuak badira -inprentak, nekazal etxeak, kasu-, esanguratsuenak enpresa berritzaileak dira horiek abiatzea askoz ere zailagoa delako. «Eskaintzen duten zerbitzua ez du jendeak ezagutzen eta jakitera eman behar duzu zer egiten ari zaren. Hori guztia asko kostatzen da» gaineratu du Lezak. Proiektu bakotzaren heldutze mailak oso ezberdinak badira ere, egun horietatik aurrera ateratzen dira %40-50 inguru. Gainera, bada aipatzeko beste datu bat, CEINera hurbiltzen den lagunen %45 emakumeak dira, langabezia gehiago pariratzan dutelako eta beste askok bezala autonepluega dute irtenbide.



Lourdes Olaizola

**Musikan lan egin nahi dugu baina esparru berrietan: ordenagailu bidez, haurrekin... ez gara kontserbatorioekin lehiatzera etorri baizik eta hutsik dauden esparruak betetzera. Haien lanen osagarri gara»**

Oraindik hasi besterik ez badira egin ere, ondoko laurak enpresario saiatu eta berritzailearen lekuko ditugu.

**Infragorriekin funtzionatzen duten produktua**

Bonifacio Ross Industrias BRP elkarte mugatuko (E.M.) hiru bazkideetako bat da eta izpi infragorriekin funtzionatzen duten iturriak egiten dituzte. Enpresa Bartzelonan abiatu bazen ere, ekainean Nafarroan ezarri ziren, Bonifacio baita enpresako nafar bakarra. CEINek enpresa hasi berriei Noaingo Elorzeko poligonoan eskaintzen dien egoitzan kokatu dira. 12 milioi pezetako kapitalarekin hasi ziren eta 1998an uste zuten baino gehiago saltzeko asmoa dute. Europa osoko legediaren arabera elikagaiak maneiatzen dituen orok eskuiekin erabiltzen ez diren kanilak erabili behar ditu eta horlik datorkie ideia. Funtzio hori egiteko oinpeko iturriak erabiltzen dira baina hauek garbiagoak eta erosoagoak dira. «Orain sortzen ari gara merkaturia eta harrera ona izaten ari da. Hemen hasi besterik ez gara egin baina uste baino gehiago salduko dugulakoan nago. Gainera, behin hemengo merkatura zabaldu eta gero, Europar sartzeko ahal ditugun homologazio gehien lortzen saiatzen ari gara», dio. Orain arte zuten ereduak hobetzen ari dira eta Elozoko poligonoan duten egoitzan hasi dira jadanik seriean produktitzen.

**Music-Works: Musika eta inglesa haurrentzako**

Eskolatik kanpoko aktibitate moduan, hiru urtetatik aitzinako umeentzako hezkuntza zerbitzuak



Bonifacio Ross

«Orain sortzen ari gara merkaturia eta harrera ona izaten ari da. Hemen hasi besterik ez gara egin baina uste baino gehiago salduko dugulakoan».

ematen ditu Music-Works enpresak. Hiru bazkidez osatzen dute musika klasiko eta inglesa irakasten duen enpresa abiatu dutenak: Elena Fernandez, Idolia Juan eta Lourdes Olaizola. Aurreko biak bederatzit urtez ari dira musika akademiatan eta Lourdes abokatu bulego batetik dator. Beren lanak utzi eta zeukatzen esperientzia aprobetxatuz, buruan zuten proiektua gauzatzera ausartu ziren joan den urtean. Hezkuntzaren alderdia betetzen bazuten ere, «laguntza behar izan genuen enpresa osatzerakoan. CEINeko Erne proiektuaren barruan sartu eta ahulkularitza eskaini ziguten gure ideiei forma emateko. Maileru subentzionatu bat eman ziguten. Orain jarraipen bat egiten digute baina gutxinaka gero eta autonomoagoak gara», gogoratu du Olaizolak. Ikastetxeetara joateaz gain, klaseak emateko egoitza bat ere badute Iruñeko Barañain Etorbidetako 13. zenbakian. Hiru milioi pezetako kapitallarekin hasi ziren eta zortzi langile dituzte plantillan musika eta inglesa irakusteko. Beren helburua «haurrek txikitatik musikaren ezagutzarekin hasi ziren eta zortzi langile dituzte plantillan musika eta inglesa irakusteko. Beren helburua «haurrek txikitatik musikaren ezagutzarekin hasi ziren eta zortzi langile dituzte plantillan musika eta inglesa irakusteko. Beren helburua «haurrek txikitatik musikaren ezagutzarekin hasi ziren eta zortzi langile dituzte plantillan musika eta inglesa irakusteko».

Esther Zubillaga

«Bezeroak aurreztu egiten du eta era berean, atmosferara gas kutsatzaile gutxiago bidaltzea ekiditen ari gara. Ordurarte erabiltzen zuen energiaren %30 aurreztu dezake»



material berria sortu dute, gaztetxoek beharrei egokitu. Dena den, ez dira bakarrak merkaturian, kanpoko enpresak sartzen hasiak baitira. «Gure ideia da hemen bertan dagoen enpresa batek eskaintzen duen zerbitzu zuzena eta hurbilagoa ematea», gaineratu dute. Zerbitzu kulturali dagokionez, saiatzen ari dira musika klasiko sustatzen master-klaseen bitartez. Kontserbatorioan edo bere kabuz ikasten duen ikasleak osagarri bezala teknikak hobetzeko modu bat da. Nazioarte mailan mailuak diren interpretatzaileak ekartzen dituzte eta entzuketak egiten. Aurtengo ikasturtean beste eskaintza batzuk gehitu dituzte: erdi eta goi mailako ikasleentzako hobekuntza ikastaroak, partitura tratamenduak eta ordenagailu bidezko sekuentziak. «Musikan lan egin nahi dugu baina esperru berrietan: ordenagailu bidez, haurrekin... ez gara kontserbatorioekin lehiatzera etorri baizik eta hutsik dauden esparruak betetzera. Haien lanen osagarri gara», azpimarratu du Lourdesek. Hasiera guztiak gogorak badira ere, pozik daude egiten ari direnarekin. Joan den urtean 190 ikasle izan zituzten eta aurten badituzte 240. Beraz, musikaren notak eta inglesa tartekatuz aurrera doaz.

**Emma: Musika garaikidea irakasten duen eskola**

Emma musika garaikidea irakasten duen lehen eskolada Nafarroan. Aizoaingo Arsaia musika elkartearen dago eta Mikel Morote da arduraduna. Musika modernoaren irakaskuntza bazterturik



Mikel Moroto

«Aurreko pauso bat gara, ez dugu estilo jakin batetara inor bultzatzen instrumentua erabiltzen erakusten dugu eta bakoitzak aukeratu dezala gero nahi duen espezializazioa»

tzuna «izugarria izan zen». Joan den urtean batzabeste 154 ikasle izan zituzten eta aurten 220ra iritsiko direlakoan daude. Hasi ziren lau milioi pezetako inbertsioarekin hasi ziren eta eskaera ikusirik egoitza hobetu eta handitu behar izan dute. Aurten beste zortzi milioi pezetako inbertsioa egin dute sala gehiago egiteko eta aretoak hobekiago hornitzeko. Eskolak lau bazkide ditu eta Mikel da bazkide langile bakarra. Etorbizuneko proiektu dela esanez bukatu du.

**Levenger:**

**kogenerazioan lan egiten**

Esther Zubillaga da Levenger e.lko kudeatzailea. Hamar milioi pezetakin hasi zen duela bi urte Lekuberrin duen egoitzan eta gutxira gehitu zitzaion orain duen bazkidea. CEINek merkaturia nola zegoen ikusten lagundu zion. Egun beste bi langile dituzte enpresan. Estatu Batuetan Enpresariak moduko bat ikasia, kogenerazio merkaturia bazegoela ikusirik bazkidearen ezagutza tekniko eta bere merkatu lana tartekatuz aurrera egiten hasi dira. Joan den urte oso gogorra izan dela aitortu du, produktoa merkaturian sartzea kosta egin zaielako. Energia alternatiboetan ingeneriatza bat dira eta kogenerazio sortzen duten aparatuen hornitzaileak dira. Kogenerazio elektrizitate eta beroa sortzea da eta motore alternatiboekin bidez egiten dute. Motore horiek elektrizitatea ez ezik, beroa ere sortzen dute aldi berean. «Teknologia nahiko garatua da industrian. Bero kontsumo handia duen enpresen interesatzen zaie edo egur lehortegetan edo igerilekuetan. Ura berotzeko edo lurruna den guztiak behar du beroa eta bero hori sortzen dugu guk, beroa behar den tokian zentral elektrikoak paratuz», gaineratu du. Kogenerazioaren abantaila energia aurrezpena da. Hasierako instalakuntza garestia bada ere, energia asko aurrezten da, produktitzen den toki berean sortzen delako. «Bezeroak aurreztu egiten du eta era berean, atmosferara gas kutsatzaile gutxiago bidaltzea ekiditen ari gara. Ordurarte erabiltzen zuten energiaren %30 aurreztu dezake» azpimarratu du. Oraingo, Euskal Autonomi Erkidegoan dituzte batez ere bezeroak, baina orain merkaturia zabaltzen ari dira Nafarroa. «Banatzaile bakarrak dira bereak dituzten ekipetant. Ez da erraza gure produktua saltzea merkaturian denbora gutxi daramagulako. Ez gaude erabat kontsolidatuak baina hutsetik hasita gutxi gelditzen zaigula iruditzen zaigu», bukatu du.

→ Irene Arrizurieta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

# Jovellanosen ekarria gurean: jostaketa publikoen oroitegiatz

Ez da harrizkoa Jovellanosen ekarpenak izan zituen eraginaren artean lztuetak onartu izana, izan ere, eta zalantzarik gabe, Espainiako ilustrazioaren eredu eta pertsonaia nagusienetakoa izan baitzen.



**E**KAINAREN IAN, GAZTELAKO Kontseiluak Espainian aitzinean erabilitako joku, espektakulo eta jostaketa publikoen gaineko txosten bat eskatu zion Historiaren Akademiari indarrean zegoen legediaren balizko erreforma baten aurrera eramanean ahal izateko, eta bigarren horrek, Jovellanosi luzatu zion mandatua. Astirik gabe, denbora pasatzen utzi zuen, harik eta Kontseiluak 1790.eko urrian eskatutakoa eskuratu nahi izan zuen arte. Jovellanosek, orduan Gijonen zegoela, ddi-dda egin zuen, eta abenduaren 29rako igorri zuen Madrilera. Berau ere ez zen pozikegi geratu: zalui egindako lana zen, bere apunte gehienak Madrilan zituen, eta bigarren idazketa ondu zuen 1796.ean, Akademiak uztailean egin batzarraldietan irakurria. Arrakasta handia izan zuen, baina aurreko urtean nekazal araudiaren gaineko liburua in-kisizioarekin ekarri zizkion arazoak zirela eta, ez zen argitaratzea ausartu, eta argira atera gabe geratu zen 1812.ean *Memoria para el arreglo de la política de los espectáculos y diversiones públicas y sobre su origen en España* izenburuko Madrilgo Sancharenean azaldu zen arte, hil ostean beraz.

Irakurleari oharra eta egilearen sarrera baten ostean, lanaren lehenbiziko zatia garatu zuen, hau da, erromatarren garaitik hasita herri jostaketa eta espektakuloen historia azaltzekoa; ez zuen Jovellanosek erromatarrena baino aurretigoko garaietako daturik eskeini nahi, zientifikotasunez egin nahi zuen eta, eta orduko datu urriek ez zerituen fidagarri asturiarrak. Onartu zituen erromatarren entretenigarri berak espainiarrenatatzat, eta zerrrenda eskeinita, hau da, chiza, erromeriak, joku eszenikoak eta joku pribatuak, berauen historia partikularra eman zuen.

Oroitegiaren bigarren zatia, jostaketek pertsonengan zez-

keten eragina eta helburu hori lortzeko erabil zitezkeen bideen azterketa dugu, beraz, orduan usean ziren modua zuzentzeko proposamenak, behar zenean bederen. Harritzekoa da Jovellanosen sintesirako zuen ahalmena. Bitan banatu zuen herria: lan egiten zuena, eta errenten bizkar bizi zena. Berez, espektakuloak ez zegozkien lan egiten zutenen, nahiz aisialdia beharrezkoa zitzaizela onartzen zuen. Jovellanosen ongi pasatzeko askatasuna aldarrikatzen zuen, eta festegunetan lan egiten zuen herria entretenituko zuen jostaketen eza salatu zuen tapakirik gabe. Horrenbestez, Jovellanosen legeen aldaketa zuzena eskatzen zuen. Oroitegiaren bigarren zati honen sarrera osoa lztuetak ekarri zuen 1824.eko dantza liburuan, erderaz eta euskaraz. Dantza liburua testuan, aurretikago aipatua zuen jada Jovellanosen ekarria, baita bigarren zati honen sarreran agerturiko ohar labur batekin. Jovellanosen oroitegiaren lehenbiziko orrazaldia ondu zuenean, Euskal Herria ez zuen zuzen-zuzenean ezagutzen, edo bederik ere, oraino ez zen honaino etorritik, eta horregatik ere, gureari zegokion aipamenik ez dago horretan. Alabaina, bi idazketen artean iragan zuen bulta laburreko tartean, Jovellanosen bidatzia burutu zuen gurera: «*Cuando escribimos esta Memoria, no conocíamos el país bascongado, ni sus bailes dominicales, pero un viaje hecho por él en 1791, y repetido en 1797 nos proporcionó el gusto de observarlos y nos confirmó mas y mas en lo que habíamos escrito acerca de las diversiones populares.*»

Iztuetari berebiziko laketa


eman zion Jovellanosen eginiko aipamenak. Alde batetik, kanpotarra izateak berekin zekarren alderdikeriarik gabe eman zuelako Gipuzkoako dantzei buruzko epai ona Espainiako beste dantza guztien gainetik ezarritik, eta bestaldetik ere, Gipuzkoatik kanpo zabaldu zuelako bere epaia, Gipuzkoako izen ona leku guztietan jakinaraziko zuela. Pena bakarra geratu zitzaion lztuetari, Jovellanosen ez zuela aprobetxatu Gipuzkoako dantza guztien berri jasotzeko: «Nere pozkidarrik aundiena litzake bada, Jovellanos bezelako gizon zentzutsu eta ekai onakiko batek, Gipuzkoako dantza mota guziak zein bere soñu zar gogoangarri, itz neurtu egoki, eta senaera mirari suakin bear bezala ezgautzea, mundu osoari argitaratzeko, zenbaterainokoa dan beran aunditasuna.»

Lehenengo zatian bezala, bigarren honetan ere Jovellanosen hainbat elementuko zerrenda erreparatzeari ekin zion: jostaketa hiritarrak, maestranzak, akademia dramatikoa, saraokak, maskarak, pilota jokua, hizketaldietarako etxeak eta antzerkiak. Pilota jokuei buruz mintzatzerakoan, aurretik dantzarekin gertatutakoa errepikatzen da. Oroitegiaren lehenbiziko idazketan ez zuen Euskal Herria ezagutzen, orain berriz bai, eta: «*También en esto se distingue el país bascongado. No hay pueblo considerable en el que no tenga su juego de pelota, grande, cómodo, gratuito y bien establecido y frecuentado, y así como juzgamos que los bailes públicos influyen en el carácter moral, hallamos también en ellos y en estos juegos la razón de la robustez, fuerza y agilidad de que están dotados aquellos naturales.*»



etorri ahalean

Patziku Perurena



## Arre moro!

**G**AUR EGUNEAN EZ DAKIT zer izan nahiko luken, zientzia fikzioz kokoteraino egina dagoen mutikoak, baina niri zer izan nahi nuen galdetu izan balit inork mutikotan, «mandazab» kontestatuko niokeen itsu itsuan.

Goizuetan ezagutu nituen atzeneko mandazaiak. Xanti Miru hirulau mandorekin; Joxerramon Artanxu beste bost seirekin; eta gutxi gehiago. Eskola ttikian genbiltzala, eliz ondoko askara ekartzen zituzten ura edanaraztera eguerdiro, eta gu, mutiko gizonahi haiek, mandoei begira egoten ginen liluraz, gehiegi ondoratu gabe; elkarri hozka eta ostikoka hasten baitziren mandoak tarteka, eta orduan...

-Uooo Nabarro! Pasa hona Moro!... edo halakoren bat esanen zizun mandazaiak harro. Oi zeinen xoragarriak abereizen arrotz haiek: Nabarro, Kastaño, Blanca, Moro... mandazai euskaldunen ahotan! Baina gaur, besteak beste, mutikotan ezagutu nituen Moro izeneko haiek dotozkit gogora, oroimeneko xoko ilunen batetik arrantzaka.

Nafarroako Foru Zaharrean, delitu kontuak leitzen ari nintzela, haratx zerekin egiten nuen topo lehengo batean:

«Si moro o bestia de alguno fiere al ombre et lo niega, con dos testigos leyaies cristianos li deve probar. Et si probar non li pueden, el seynor del moro o de la bestia deve iurar que su moro o su bestia non lo ferió; et si iurar non quisiere, rendrá el moro o la bestia.»

Neremodu euskaraturik honelatsu litzake: «*Baldin moro edo abere batek zaurituko balu gizonik eta jabeak ukatu, bi testigu girstino leialen bidez frogatu beharko du. Eta ezin frogatu balu, moroaren edo aberearen jabeak zin egin beharko du haren moroak edo abereak ez dela zauritu; eta ez balu zinik egin nahi, moroa edo aberea ordaindu beharko du.*»

Horratx moroa abere. Ez pen-

tsa, ordea, gure arteko moro guziak aberetzat hartuak izan zirenik. Lehengoak lehengo, Erdi Aroko sarrazenoen inbasioaz geroztik nonahi ugaltu ziren moroak lurrotan, Espainiaren arrakonkista garaian uxarazi ziren arte. Baina, ordukoa ere, beste askotakoa bezala, paper kontu hutsa izan zen; bertan gelditu nahi zuten moroek, ez baitzuten inolako eragozpenik izandu, hemengo usuarioak betexe eta zergak ordaintze alde. Are gehiago, aldegin ez zezaten, moroak ba-besteke legea ezarri zuen erregek, Nafarroan aberastasun haundia sortzen zutelakotz.

Hala, beren auzogune berezietan bildurik segitu zuten moro talderik bizkorrenek, beren merkatu, sineskera eta abarrek. Eta herriz herri sakabana-tutako beste moro asko, berriz, lasa asko bertakotu ziren. Egia da, ordea, horiez aparte, bazela moro franko, edozein delitugatik bahitu eta erregeren edo jauntxoaren esklabo bihurtua, eta hauek ziren endemas aberetzat joak.

Eta horra, mila urtetara doan sinonimia baten oihartzuna, mutikotan ezagutu nuen abere hizkeran: «*Arre Moro! Soo Moro! Atzera Moro! Kieta Moro! Pasa aurrera Moro!*». Oraindik begi begietan dauzkatz Goizuetako Moro haiek: Benaibordako astar urdin aztaloker hura, Petrineko mando gorri ostikolaria, Aldaiko mandoko uhela... Ez, ez zioten beren larruje beltzari zor izena; aspalditik haragitua zekarten nonbait moro izana.

Kontuak hola, usteko duzu, nere mutikotako lilura inoxente hura, menderen mendetako esklabutza edo aberekeria izugarri baten errua dela, baina, kontuz! Moroa, jitoa bezelaxe, aberezele amorratua duzu oraindik. Begira bestela, abere ferietan (Estellan, Iruñen, Zumarragan, Baionan) biltzen den traperojende horri, eta zerehala ohartuko zara, ez dela horietan moro/jito jite nabaria duen euskalduna (edo ez) baino zaleagorik inor.

## Ziria

• Motxorrosolo •

### Orreaga

**H**IL HONEN HEMERETZIAN DUTE AURKEZPENA. IDURIZ, ZAILA DA OSO ELKARTEAREN IZAERA HITZETZ KAIOLATZEA. Iritzi taldea, sortzailea nonbait, kultur taldea, anitza zinez, hedabide gisakoa, mugik eta bazterrik gabekoa omen. Ekialdeko kezka deitua izan den iritzia bideratzeko baliagarria. Alta, haratago joan beharra dauka. Horrenbertze urtez pilaturiko aurretizien zafraztailea bada hobe. Aukera berrien antzinean orijinaltasuna erakutsiko duena, Pedroaren eskaintza onartzera.

# Tasio Agerre

Iturralde elkarteko partaidea

## «Ahots kritiko bat izan nahi dugu»

Tasio Agerre Iturralde elkarteko partaidea da. Azken lau urteotan egin moduan, aurtengo ikasturtean ere hitzaldi mordoa antolatu dute Euskal Herriko historiaren ikuspegi zabala emateko. Ezagutza falta hori sumaturik, ahots kritiko bat izan nahi dute historia interpretatzerakoan, azaletik haratago joanez.

Luze hitz egin du Tasiok elkarrekin euskaldunen artean sortu nahi dituen gogoez. Taldeko beste hainbat bazkideri gertatzen zaien moduan, gaiak harrapatu egiten du eta orduak eta orduak emanen lituzke eztabaida sortzaille batean.

### ■ Nola sortu zen elkarteak?

Orain sei urte hasi ginen lanean. Euskal munduko hainbat sensibilitatetik

etorritako pertsona batzuek erabaki genuen batzea, egoera larria ikusi genuelako kultura zein politika aldeetik. Iturralde izena jarri genion gure iturrietara hurbiltzeko beste modu bat izan zitekeelakoz. XIX. mendean sortu zen Nafarroako Euskara Elkarrekin bultzatutako arekin ados gaudenez, sortzail

leetak baten oroimenez jarri genion elkarteari izena —Iturralde y Suiten omenez, alegia—. Konturatzeko zer-nolako garrantzia izan zuen elkarte hark.

### ■ Hitzaldi ziklo bat hasi duzue. Zein helbururekin?


Elkarrekin sortu zenetik erabaki genuen alor kulturalen ahots kritiko bat izatea gure herriaren egoera sakonki aztertze eta salatze. Erabaki genuen akonfesionala eta apartidista izatea. Lehendabiziko urteetan gorputza eman genion. Geroztik, ekitaldiak antolatu ditugu eta hitzaldietan parte hartu dugu. Aurtengoa izanen da laugarren hitzaldi zikloa. Orain arteko babesa Atarrabiako Udalak ematen digu, baina konturatu ginen Iruñeko jendea zela gehienbat hitzaldietara joaten zena. Hori dela eta, aurtengoa Iruñe-

ko Udalak Navarriako kultur zentroa utzi digu eta hor gabilta lanean.

Asko ikertu eta eztabaidatu behar da kulturaren inguruan. Eta hori ez da normalean egiten, eta erabiltzen diren kontzeptuak oso orokorrak dira. Neurri batean, euskal kulturaren oinarriak jartzeke daude esparru batzuetan. Normalean ez dira ezagutzen zein izan diren gure oinarri politikoak eta kulturalak. Ez antzina gertatutako lotura batekin, baizik eta geroko ikuspegi zabal batetik. Bertzalde, kulturen dauden alor batzuetan sakontzen saiatu gara: antropologian, ondarearen aferan eta hezkuntzan.

### ■ Nola funtzionatzen duzue? Hitzaldi ziklo bat antolatzen duzue urtero, baina ez duzue bestelako lanik egin zuen berri emateko?

Gure lana izan da hitzaldiak antolatzea eta beste elkarte batzuekin hartu-emanak izatea, parte hartzea beste ziklo batzuetan. Egunkarietan eta aldizkarietan iritzi artikulu asko atera ere egin dituzte gure bazkideek. Hemendik aurrera hasiko gara liburuak argitaratzen. Tomas Urzainki taldekideak *La Navarra maritima* liburu atera zuen eta beste bi liburu prestatzen hasiak gara. Mikel Sorauarenek Nafarroaren historiari buruzko liburu bat idatzi du, euskaldunok estatu propio bat izan dugula frogatzeko. Uste dugu euskaldunok estatu propio bat izan dugula eta estatu hori egoera normalizatu batean berreskuratu beharko



● MIKEL SAIZ

### soslaia

genukeela. Batez ere, Euskal Herria eta Nafarroa direla txanpon berberaren bi aldeak. Bestalde, elkarrekin prestatu dituen lan txoak eta partehartzeak kaleratzea ere pentsatu dugu.

### ■ Historia desitxuratu egin digutela diozue. Hori irauli egin nahi duzue?

Gure historia berreskuratu nahi dugu eta interpretazio berri eta sakon bat eman. Nafartasuna berreskuratu behar dugu baina kontzeptu politiko bezala, sarritan beste lurraldeetako jendeaz bereizteko erabili dutelako. Erakutsi diguten historia antropozentrikoa izan da. Sakonki ikertu beharko genuke hori eta bertez interpretazio berri bat egin beharko genuke. Orain arte gainera aztertu da historia. Gaur egungo mugagabeko munduan erakutsi nahi dugu zein den gure iritzia eta nola ikusten dugun gure herria.

### ■ Nolako harremanak dituzue beste elkarteekin?

Nafarroan dauden talde kulturekin badago erlazio sakon bat ekitaldiak antolatzeke, Getzeko Guda adibidez. Bide horretatik jarraitzeke asmoa dugu.

Iturralde elkarteak 210 bazkide ditu, Iruñerrikoak gehienak. Bilerak hilean bitan egiten dituzte, Iruñeko Alde Zaharreko Merced kalean duten egoitzan. Bestalde, hiru hilabetetik behin, historiaren beste ikuspegi zabalago eta landuago bat izateko asmoz, eztabaida sakonak ere egiten dituzte. Beste batzuen artean, 'Marjeriak, Olentzero eta Kandelario: euskal identitatearen birsorketa hiri kontestuan' eta 'Maskarak eta intsektuak. Inauterriaren irakurketa bat' hitzaldiak antolatu dituzte ikasturterako.

Tasio Agerre iruñesea da eta Nafarroako Aurrezki Kutxan egiten du lan. Agerre idazlea aitonen anai izan bazuen ere, berak ez du idazteko afiziorik ez ofiziorik hartu. Hori bai, Euskal Herriko historiari harrapatu du, eta irakurri ez ezik, ahal duen guztia ikertzen du.

Dena dela, bizitzak beste gauza batzuk ere badituela pentsatzen du, eta lagunak eta familia ez ditu ahazten. Iturralden egon baino lehen, sei bat urtean Nafarroako Bertsolaritza Elkartearen aritu zen, Lontxo Aburuzarekin batera.

### ■ Dena den, euskaldunok ahalegin handia egiten dugu hainbat alorretan, baina ez gara elkartzeko gai eta eginahal asko hutsean gelditzen dira.

Elkartu behar dugu, baina batasun hori lortuko da orain arte izan diren erlazioak eta aurreiritziak baztertzuz. Sarritan gertatzen dena da planteamendu berak mahaigaineratzen ditugula behin eta berriro. Iritzi berriak bo-

ta behar dira eta askotan izan ditugun konplexuak gainditu behar ditugu. Maiz mugitu gara minorriaren kontzeptuarekin, eta hori gainditu behar dugu. Haiek esango dute gutxiengo gara baina gure aferetan beste kontzeptu batekin ibili behar dugu, hori izan delako erabili duten aitzakia guri aurre egiteko eta gu gutxiesteko.

→ Irene Arrizurieta

## BEKARIO!

patxi@earthling.net



## Nafar Kronika

Kike Diez de Ultzurrun

### Nafar ustelak

ZER PENTSATU OTE DU SANZAK Aznarren azken asmoaren berri jakiterakoan? Behar bada, tentatua egon da Ollarrak iradokitakoa egiteko, hau da, PPrekin hautsi eta UAko babazorroen bidea hartzeko, baina auzo Erkidegoko hauteskunderen emaitzez oroiturik, egoki iritzi dio popularrekin elkar hartuta segitzeari, corellarrak ez baitzuen kolkoa sosez beterik Diputaziora sartu baino lehen, behintzat.

Irakurleak jakin beza Nafarkaria asteazken arratsaldean moldatzen dela moldiztegiari. Beraz, lerro hauek idazterakoan ezin jakin Espainiako gobernuburuak agindu duenak eraginik batere izan ote duen Parlamentuko saioan. Hala ere, Legebiltzarrean onetsitako agiriak edo adierazpenak alde batekoan zein bertzeakoak izan, bakegintzaren bideak aitzinera egingen du.

Dena dela, aurrekoari nagokiola, harritzeko modukoa da zenbat «nafar» edo «nafarzale» prest agertzen diren munduko zoko-moko guztietan, komunikabideetan, batez ere, Nafarroako «nortasuna» babes-teko, eta, Foru Erkidegoa euskal abertzaleen «atzapar pozointsueta-tik» libratzeko. Aznarren iragarpenaren ondotik, sumindurik behar dute, susmoa hartuta, Nafarroa ez ote den mahai gainean aterako. Eta ez daude prest amore emateko, ez horixe, hil ala biziko afera baita, gogor egingen diote, jazar-tuko eta oldar-tuko zaizkio Nafarroaren birjintasuna urratu nahi duenari, lur puska madarikatu hau zarrastaturik eta artesiturik ez dagoelakoan. Ondotik, haietako batekin solas egiteko parada izanez gero, hauxe leporatu-ko dizute arrazoibideetan eta zentzuzko jokabideetan «jantzita» dauden gizon-emakume horiek: «Mal navarro», (tu n'est pas un bon navarrais), erran nahi baita, «nafar ustel halakoa».

## gure aukerak

### KONTZERTUAK

- **Lesaka:** King Mafrundi taldeak kontzertua eskainiko du bihar, 22:30etan, Atxaspi ostatuan.
- **Burlata:** Pablo Sarasate Orkestrak, Santo Tomas Abesbatzak eta Schola Cantorum taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, Regina Pacis ikastetxe-ko elizan, 20:00etan.
- **Barañain:** Gozategi taldeak kontzertua eskainiko du datorren ostegunean udaletxean, 20:00etan.
- **Zangoza:** Tata Quintanaren kontzertua izanen da bihar, 20:30etan, Carmengo Auditoriumean.
- **Eunate:** Josetxo Gola-Arribek *Musica para un camino* kontzertu saioen azkena joko du bihar 20:00etan Eunate elizan. Biolontxeloarekin laguntzaile, Peio Ramirez Intxausti izanen du.

### ZINEMA

- **Tafalla:** Datorren asteazkenean, Lumiere anaien eta George Meliesen pelikula emanen dira 20:00etan Zinema Espaiolen. Ondoren, Alberto Cañadak *Zinemaren lehen pausoak: Paristik Nafarroara* hitzaldia eskainiko du.
- **Iruñea:** Datorren ostegunean, *Un hombre para la eternidad* pelikula emango dute 19:45etan Olite zinemaren.

### ANTZERKIA

- **Tafalla:** Producciones XXL taldeak *Melilla tuvo que ser* lana taularatuko du Kultur Etxean, gaur, 20:30etan.

### BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Natxo de Arcos argazkilarari donostiarrak *Pirinioetako zintzurak eta arroilak* izene-

ko diapositiba emanaldia eskainiko du gaur, 20:00etan, Nafarroako Kirol Elkarte-ko egoitzan.

- **Iruñea:** Andrea elkarteak emakumeentzako ikastaroak antolatuko ditu. Autoestima, giza harremanak, yoga eta ingele-sa landu nahi dituenak edo

etxeko konponketak egiten ikasi ondoko bi telefonoetara dei dezake: 13-33-10/13-35-11.

- **Iruñea:** Isidro Rikarte bere *De-sioaren hiria* liburuaz mintzatu-ko da datorren ostegunean, NUPeko 106 gelan 18:00etan.

- **Barañain:** Barañaingo Kultur Etxeak X. Argazki Lehiaketa antolatu du. Saria 400.000 pezetakoa da. Lanak azaroaren 11 baino lehen igorri behar dira Kultur Etxera. Lehiaketaren oinarriak 948-185310 telefonora deituz lor daitezke.

## Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini



Nafarroa Confidential